

Uhaitzibar osoa euskaldun

TXOMIN PEILLEN

1. Zuberoa ta euskara XIV. mende azkenean

Frantsesek *Saison* izendatzen duten ibarra, zuberotarrentzat Uhaitzibarra da; ühaitz, hitz horrek erdarazko *torrente* adierazi nahi baitu, Zuberoako ur handi horrek, hain zuzen, bere iturbegia, *Hegian* (Nafarroako mugan) du eta Bearnoko Salbaterra (Sauveterre) hirian, bearnes uhaitz batekin, Oloroekoarekin bat egiten du.

Aspaldidanik kondairalari eta ikerlariak diote, ibar hortako hogeitahamar bat herri zuberotar eta gehienak euskaldun direla, baita beste hamar bat Bearnoko lege mugaren barrenean ere ta gaskoinez mintzatzen. Lehen ez zen hala.

Beren aldetik euskalariak hamar bearnes herri horietan ikusi dute, baldin batzuk gaskoin izena baldin badute, *Arriba* (fr. Arrive), *Arribareita* (fr. Rivareyte), *Arribalda* (fr. Rivehaute), gehienek euskaldun kutsuko izen itxura daukatela, *Azpilda* (fr. Espiute), *Hagoeta* (fr. Haute), *Jestasü* (fr. Gestas), *Lexoze* (fr. Lichos), *Nabarzi* (fr. Nabas), *Ozagaiñe* (fr. Osserain), *Taballa* (fr. Tabaille), *Uzkaiñe* (fr. Usquein).

Hori aski ez balitz, gaskoin herri horien artean, *hiru*, legez zuberotarrak dira: *Ozagaiñe*, *Arribareita*, *Jestasü*, baita *Lexoze*, duela hamar bat urte ere, Mauleko kantonamenduan sartu da, alegia eta bai otsez zuberotar hiri nagusia hurranago, hurbilago zela eta etxe gehienetan etxekandere gazteak euskaldunak zirelaketz.

Lan honekin, ordea, askotan irakurri eta entzun dugunaren aitzitik euskararen ipar muga, duela guti, aldatu dela erakutsi nahi nuke; hortakotz *Archives Départementales des Pyrénées Atlantiques*, bilduman «Censier du Béarn de 1385» delakoa bazela begistaturik, hor XIV. mendean oraindik, aipatu hamar bat herrietatik *bostetan* behintzat etxe-izen gehienak euskaraz zirela irakurri dut, eta hori, nahiz gaskoin izkiriarezaleek euskal izenak apur bat itxuragabetu dituzten. Huna zer dion Bearnoko Bizkondeak gaskoin mintzairan eginarazi «Bearnoko etxe bilduma 1385an»:

«*Aquest libe es de la serque deus foecs de Bearn feite, de mandement de Moss. lo Comte de Foix per nos Pe Bernat de Giestaas, Menauton de Ssus et Pes deu Bau deu quoa mandement et comission se sec la tenor...*»

**LIMITE SEPTENTRIONAL DEL EUSKERA EN EL SIGLO XIV
EN EL VALLE DEL UHAITZ**



Espiute, foecs vius

Tucolo de Liceytsine (euskaraz *Elizaitzin*)
deu caperaa (apezetxea gaskoinez)
Condor d'Uthurburie (euskaraz *Uthürbüria*)
de Per Arnaut de la Faurie (gask.)
de Monaut Deu Raxo (euskaraz *Erratso*) (?)
de l'espitau (gask. izen arrunta)
de l'abadie (gask. izen arrunta, beharbada etxe noblea)
de Monic de Bidaganh (euskaraz *Bidagañ*)
d'Anaut de Caresusaa (gaskoin etxe izena)
de Monic de Begloc (gaskoin etxe izena)
de Peyrone de Claverie (gaskoin etxe izena)
de Berdolet de La Hutsete (euskaraz *Lahütseta*)
de Cheverce, domenger (euskaraz *Etxebertze*)
de Barbaneche (euskaraz *Barhanetxe*)
de Cheverrie, domenger (euskaraz *Etxeberri*)
de Domec (gaskoin izen arrunta, batzutan etxe noblea)
de Garay (domenger, euskaraz *Garai*).

Etxe izenen erdiak euskaraz dira, ehunekoa ez da askotan handiago orain euskaldun diren zuberotar herrietan. Bestalde izen arruntak Zuberoa guzian, et Ipar EuskalHerrian orotan entzun ditezkenak dira: *Abadia*, *Domec*, Jaun-etxei esaten zieten, *espitau* eta *caperaa* euskarazko dokumentu batean *ospitale* eta *apezetxe* izanen ziren. Beraz euskaraz *Azpilda* izena duen Espiute, XIV. mendean oraindik euskalduna zen.

Usquain (Labeguerie de Mongastoe, campanhe et usquain).

l'Ostau *de Tamon de Garay* (euskaraz *Garai*)
de Borgote de Campanhe (gaskoin izen arrunta)
d'Arnauton d'Arrospide (euskaraz *Arrozpide*)
de P. de Larrebiu (euskaraz *Larrebile*)
de Saussarnaut de Castelboo (gaskoin etxe izen)
de Bernat d'Usquenb juso (euskal toki izen *Uzkaiñe* gaskoin adiekti-
 bua)
de Monic de Casenove (gaskoin etxe izena)
de Guilhem Arnaut de Bonloc (gaskoin toki izena)
de P. de la Crampe (gaskoin toki izen).

Hemen, Uhaitzibarraren azken buruan eta Salbaterra ondoan gaude halaz ere oraindik izenen erdiak urbil euskarazkoak dira; bestalde lurra aberatsago izanki jabe handiagoak dira eta etxe gutiago dago zerga ordaintzeko lmena dutenak.

Charre, Sxarre, foecs vius

de Monic de Casemayor (gaskoin etxe izena)
de Guixanaut de la Piscoete (euskaraz *Lapizkoeta*)
de Guerre (euskaraz *Ager*)
Arnaut Guilhem d'Uthurriague (euskaraz *Uthürriaga*) *deu caperaa*
 (izen arrunta)

d'Arnaut Guilhem d'Iriart Bebetie (euskaraz *Iriart Beheti*)
de Monic d'Arrusurie (euskaraz *Arruxuria*).
de Ancho d'Iriart (euskaraz *Iriarte*)
d'Arnaut, tisner (izen arrunta, ehulearen etxea)
deu Soto (gaskoin izena)
de Berdot de Goalb (gaskoin izena)
d'Arriquenb (euskaraz *Arrikaiñ*)
d'Aramonet deu Franc (gaskoin izena)
de Monic d'Estebers (euskaraz *Etxebertze*)
d'Arnaut Guilhem de Lleubete (euskaraz *Lebete*)
de Guilhem d'Escularrando (euskaraz *Eskülarrondo*)
de Berdolet de Bassagueytz (euskaraz *Basagaitz*)
de Berdolet de Gunissanb (euskaraz *Gunizaiñ*)
de Guixanaut de Lande Bisquey (*Bizkai-landa*, euskal deitura)
de Guixanaut de Harritsague (euskal deitura *Harritzaga*)¹
de Monico de Jauribeheti, domenger (euskaraz *Jauregibeheti*)
de Jauriberrie, domenger (*Jauregiberri*, euskaraz).
deu Domec (izen arrunta)
d'Uthürriague (euskaraz *Uthürriaga*)
de Mongastoe (gaskoin gaztelu baten izena, euskaraz *Angastue*)

Euskaraz *Xarra* izena duen herri hori Zuberoako mugan dago, auzo herriak *Xarrikota*, *Larrebile*, *Undürañe* euskaldun ditu eta *Lexose* erdi gaskoin. Ikusten denez XIV.mende azkenean, hogeita hiru egiazko etxe izenetan hemezortzi euskarazkoak dira, hots gehienak. Orain, ere *Lexosen* bezala etxekandere gazte asko euskaldunak dira, erri hortan.

Lichos. Haute e Lixos foecs vius:

de Guilhem Arnaut de Lissague (euskaraz *Elizaga*)
de Guilhem Arnaut d'Arrustegui (euskaraz *Arroztegi*)
de Guilhem Arnaut d'Uheyce (euskaraz *Uhaitz*) (*Uheitz*)
d'Arnaut Guilhem de Cheverce (euskaraz *Etxebertze*)
d'Arnauton de Goeybeneche Susso (euskaraz *Goihenetxe*)
de Boye (gaskoin izena)
de Bertran de Berhondo (euskaraz *Berbondo*)
de Petiri de Lambeye (*Petiri* euskaraz, *Lambeye* gaskoinez)
d'Aner de Bidaganb (euskaraz *Bidagañ*)
de Bertran de Xerbee Susso (euskaraz *Etxeber*) (?) (*Xerbero?*)
de Guilhem de Xerbece jusoo (euskaraz *Etxeber*) (?) (*Xerbero?*)
de Berdolet de Goeybenche (euskaraz *Goihenetxe*)
d'Aramon de Behetie (euskaraz *Beheti*)
de Guixanaut de Guerre (*Aguerre*, euskaraz *Ager*)
de P. de Gorrondo (euskaraz *Gorrondo*)
de Arnaut Guilhem de Gamughuli (euskaraz *Gainholi?*)
de Harispe (euskaraz *Harizpe*)

1. Aita Lafitte, euskalari, euskalzale doktorak bere haurtzaroan, Xarran, izeba bairnes baten etxean hazia izan zen eta *Harritzaga* izenari buruz idatzi digu «*Lixosen*, ene izeba bairnes baten ahizpa, *Haritzaga* deitu egoitzan bizi zen» (82.VI.14 eko eskutitzean).

deu Domec de Lixos, domenger (izen arrunta)

deu Basco d'Arroki lous sieys foecs (*Arrokiko* euskaldunak)

Menaut de la Faurie, *procurador de los vesiaux de Xarre, de Haute et de Lichos dixs apres segrement que an pagat lo foe gatge entro asi per XXXII foecs vius*. *Hagoeta* (Haute) eta *Lexose* (Lichos) euskaraz deritzaien bezala herri euskaldunak dira XIV.mendean, hogeitahamabi sukaldeen (foecs) artean hirurek bakarrik gaskoin izena daukate, kondatzen ez ditugularik izen arruntak.

Beraz orain gaskoin diren bost herrietan XIV.mende azkenean etxe izen gehienak euskal izenak ziren hala nola *Azpildan*, *Hagoetan*, *Lexose*, *Uzkaine*, *Zarra*, beste bostetan euskal izenak gutiengoan dira, beti bizpaur agertzen delarik.

Bestalde, Constantin medikuak, aintziñan, Baretos ibarra zuberotar zela XV.mendean eta *Sarraltzüne* izena zeukala, Bearnoko etxe-izen bilduman edo zerga izen bilduman Landa (Lanne) delako herrian ez dugu euskal izenik irakurtzen, nahiz eta gure egunetan herri hortako auzo osoa baden euskaraz mintzatzen dena; berdin ez da *Eskiula*, Bearnokoan omen dena eta gure egunetan euskaldun oso denaren hatzik ez ondarririk ikusten, ala Baronia bat zen ezkerro Mesples aiaren eskuetan ez zen ez Zuberoako legean ez Bearnokoan. sartzen.

Noiz gertatu den bost, nahiz hamar herrietan euskararen galtzea ez da errez esatea; badakigu gaskoina lege hizkuntza, lege mintzaira bezala Zuberoan XIV.mendean sartu dela, baita Foix-eko konde aren izenean, gaskoinek Zuberoa hartu eta 1449.tik 1474.eraingo gure herria okupatu, beren hizkuntza hain barrenetik sartu non eta ondotik –Jakes Belakoak XVII.mendean idatzitako Mauleren deskribapena irakurtzean-toki izenen arauera, Gaskonian gaudela iduri luke:



2. Jakes Belakoaren argibideak, Zuberoan bearnes mintzaira erabilteari buruz

Zuberoako Ohitura edo foruen bilduma, 1520.an bearnes hizkuntzan eman izan zen, eta jokabide horren argitzeko Jacques de Bela kondairalariak, geroago frantsesez Foruak eman zirenean egin zituen irazkin famatuetan *Commentaires à la Coutume de Soule* izenekoetan irakurtzen dugu nola gudu-jabetze baten ondotik, Gaskoin mintzaki hori gure herrian sartu zuten:

«Quoique le sieur d'Ibarrola eu la rédaction en écrit authentique l'homologacion et publication de cette coutume eut passé la dite redaction par écrit de langage Bearnais auquel vraisemblablement elle lui fut proposée à cause que le comte de Foix, seigneur de Bearn avait possédé cette Soule par plusieurs ans et jusqu'à l'année 1474, que Charles VII,

le lui racheta et que durant ledit tems de la jouissance de cette Soule par ledit Seigneur de Bearn ses officiers parlarent et domesticarent ici le dit langage Bearnais qui etait encore au dit an 1520, entre ceux qui s'y mêlaient du fait des écritures.»

(Op. cit. nonbait 1665. urtean, Foruko lehen izenburua, Belaren eskuko 19. orrialdean, Pariseko B.N.aren aldaketan 35. orr.)

Hemendik ikusten dugu gaskoin ta bearnesek Foix-eko kondearen izenean Maule ta Zuberoaz jabetu zirenetik 1449. urtean eta nonbait gutienik 1520. urteraino, bearnes mintzakia lege-hizkuntza zela herrian. Urte horien aurretik eta aitzinetik, bearnesa jadanik Zuberoan sartua zen, zeren badirudi «Censuel du Roy» delako Erdi-haro bilduman, mintzaki horren hiztegia sartzen hasi zela. Andere bat ari da lan horren ikertzen argitaratzekotan. Azken urtearen ondotik XVI. mendean, Frantziako erregeak Villers-Cotteret-eko ordonantzak hartu ondoren, 1539. urtean, beareala zuberotarrek Frantziako Erregea Jaun izanki, bearnesetik frantzesera iragan ziren; Bearno, atzerritar herria inzanki XVII. menderaino bearnesak herri hortan lege hizkuntza izaten jarraituko du, gure izeneko etxean ikusi paperetan agertzen den bezala, oraino 1650. urteko kontratuan.

«Dex de Mauléon. De Mauléon laquelle dexeté commence au milieu du pont de pierre de sur le Gave dit le Saison, entre Mauléon et le côté, d'en delà vers le lieu de Licharre et entre le ruisseau dit la Rioü deou Miey qui descend de Matelon faisant fontaine de Pelon, gouttière de Ramat et va au pont de la Borde qui fut de Johanna jusqu'au pont de l'entretepu (?) et le pressoir et de Coterouge, proche le cavin d'eau dit L'Abeourade et dillec jusqu'aux dites gouttières de Ramat et de là qui par en outre le chateau de Mauléon et quartier de Bramapa conduit jusqu'au chemin qui se croise dessus l'église de Berraute en Errecagaytç (pied de la montagne dite Matelon et dillec par entre la métairie ou grange ou jardin de la borde de Berraute jusqu'au dit gave et de là en bas (comprise la moitié de la dite rivière, jusqu'au milieu dudit pont de pierre de sur la grosse rivière du dit Mauléon, ou sont de ôté et d'autres des angles et de là en bas jusqu'au dit ruisseau qui sous l'enclos de la dite borde qui fut de Johanna s'unit au ledit gave et ainsi l'enceinte ou le circuit de tous les dits aboutissants sans qu'on y obste que parties desdits dex soient dans le dixnaire de Chéraute jusqu'à la maison Colomet et de là en sus (comprenant le jardin de Mancego d'Iracot, de Gourdo, d'Oliberot, de Mantengos le long de la chaussée jusqu'au bras de fer inclus et en bas le long du fossé de Mauléon, jusqu'à une source d'eau d'après le jardin de Perissé et Gorret et de là à la porte de la maison dite de Portau et de là au dit lac de Labeourade (sic), de là en haut le ruisseau de Pelon au col de Mirande et de là le long du chemin devers Barcus jusqu'à celui du bordar de Polit qui tire vers Aguer de Mauléon et le ruisseau qui en descend vers Goillard et Chibilchibar... Arrest du Conseil du Roy en Ap 1, 1604 (Jacques de Bela) Commentaires à la Coutume de Soule.

Con este estudio intentamos aclarar ciertos aspectos de la gasconización del valle del «Saison», en Zuberoa; nuestro valle, o Uhaitzibar fue enteramente vasco-hablante en el medioevo, pero la parte inferior del valle pasó

al Bearn en época desconocida. Utilizamos las referencias del «Censo del Bearn en 1385» donde figuran parte de los diez pueblos que, ahora, hablan el dialecto bearnés del gascón. De modo que al final del siglo XIV podemos leer que en cinco pueblos la mayoría de los nombres de las casas son vascos y que los demás pueblos llevan nombres eúscaros. Por otra parte tres pueblos, casi vecinos llevan nombres de tipo navarro *Taballa* (cf. Tafalla), *Arriba* (cf. Arriba), *Arribalda* (cf. Erripalda, Ripalda). Tres de los pueblos de habla gascona pertenecen a Zuberoa.

Con documento del siglo XVII, se observa en la descripción de la villa de Mauleón hecha por el historiador vasco Jacques de Bela, nacido en esta ciudad, como la mayoría de topónimos son bearneses. El escritor, de Bela es modelo de esta diglosia vasco-bearnesa, puesto que si notó una lista de refranes en gascón, se dedicó, sobre todo, al estudio del euskara (proverbios, gramática, léxico). Este escritor nos da unas razones que permiten entender esta ofensiva del dialecto bearnés del gascón, pues este idioma penetró en Zuberoa a lo menos desde el siglo XIV en su forma escrita, con un culmen en relación con la ocupación gascona, bajo el poder de los señores de Foix y Bearn (1449-1474); el retroceso del bearnés en Sola empezó después de 1539, cuando las Ordenanzas de Villers-Cotteret impusieron a los súbditos del rey de Francia la obligación de emplear el idioma francés en los escritos oficiales y por sentencia del Parlamento de Burdeos, el 16 de agosto de 1597, se exigió en esta provincia el conocimiento del euskara y la redacción de los textos en francés exclusivamente. En un documento familiar de 1591 vemos que ya no se emplea el gascón en las escrituras de una subasta.



